



Lan deialdia



Enplegu eta etxebizitza teknikaria Euskadiko Gazteriaren Kontseiluan

ESKAITZEN DA:

- Lanpostua **GASTEIZEN**, baina lan eremua Euskadi osoa izango da.
- **Jardunaldi osoko** lanaldia.
- **Urtean 25.785,60€-ko** soldata gordina.
- EGKren **barne hitzarmenak** araututako lanpostu bat eta **EGK-ko Batzorde Iraunkorraren ardurapean**.
- **Lantalde gazte eta dinamiko** batean parte hartzea.
- Gizarte eta politika publikoetan euskal **gazteriaren eskubideen alde** lan egitea, bereziki enplegu eta etxebizitza alorretan.

LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK:

- Enplegu eta etxebizitza arloko **politika publikoak** ezagutu, hausnartu eta lantzea (Enplegu planak, etxebizitza legeak, Gazte Planak, eta abar).
- Elkarre, eragile, talde eta gazte parte-hartzaileekin harreman zuzena mantentzea eta **etxebizitza eta enpleguarekin lotutako proiektu eta prozesuak garatzea**.
- **Enplegua eta gazteria lan taldea** kudeatzea eta honen ekimenak lan taldeko kideekin batera garatzea.
- **Etxebizitza eta gazteria lan taldea** martxan jartzea eta honen ekimenak garatzea.
- **Erakunde Publikoekin bitartekaritza** eta **elkarlana** burutzea (Eusko Jaurlaritza, aldundiak, udalak, mankomunitateak eta beste edozein), **gazteria, etxebizitza eta enplegu sailekin**.
- Lan arloari dagozkion **proiektuak** eta **ekimenak diseinatu, aurrera eraman, ebaluatu** eta **koordinatzea (GazteLabel, SOSgazteak, lan istripuen protokoloa, emakume gazteak eta enplegua...)**.
- **Elkarre** eta **gazteek arlo honen gainean** garatzen dituzten **proiektuak/ekimenak** ezagutzea eta haietan parte-hartzea.
- EGKren lan arlo guztiekin **ekintzak koordinatzea**.
- Dagokionean **komunikabide** ezberdinetan adierazpenak eta analisiak egitea.

ESKATZEN DA:

- **30 urte baino gutxiago** izatea.
- **Goi ikasketak** izatea. Edozein esparrutako ikasketak izanda ere (teknikoak zein gizarte gaietakoak), gizarte arloko espezializazioa edo ikasketa gehigarriak egin izana baloratuko da.
- Euskal **gazteriaren egoera eta baldintza sozioekonomikoen** eta, oro har, gizartearen errealitatearen ezagutza. Etxebizitza eta enplegu arloko lege, programa, neurri eta proiektuak ezagutu.
- Euskal **elkartegintzaren, gizarte mugimenduen eta parte-hartze modu ezberdinen ezagutza** izatea, bereziki etxebizitza eta lan baldintzei dagokienez.
- **Euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiteko eta idazteko maila altua (EGA, HABE 3...)**



- **Gazte lan taldeak eta eztabaida taldeak dinamizatu eta koordinatzeko gaitasuna** eta esperientzia. Dinamika hauetatik **ondorioak atera eta dokumentuetan islatzeko gaitasuna**.
- **Legeak, dokumentu ofizialak eta txostenak** landu, ondorioak atera, ikertu eta ekarpenak egiteko gaitasuna.
- **Administrazioarekin harreman** formalak bideratu eta interpelaziorako gaitasuna.
- **Malgutasuna:** ordutegi eta mugikortasun geografikoa.
- **Ikasteko gaitasuna.**

BALORATUKO DA:

- **Lan taldean** aritzeko trebetasuna: malgua izatea, proaktibitatea eta **ardurak** hartzeko prestutasuna.
- Ekimen propioak **autonomiaz** garatzeko gaitasuna (beharrak hauteman, proiektuak diseinatu, ekarpenak barneratu, faseak diseinatu, helburuak lortu).
- **Antolaketarako** gaitasuna.
- **Harremanetarako** gaitasuna.
- Pertsona **sortzailea** eta inizatibaduna izatea.
- Aldi berean hainbat eginbehar berean gauzatzeko gaitasuna.
- Ingelesa eta **beste hizkuntza batzuen ezagutza**.
- Informatika-ofimatika, **diseinu eta maketazio programak** erabiltzen jakitea.
- Ahalik eta gazteen izatea.

HAUTAGAIA IZATEKO:

- Epea: **azaroaren 16a, eguerdiko 12.00ak arte**.
- **Kurrikuluma eta motibazio gutuna bidali** egk@egk.org helbidera. E-mailaren gaia zehaztu: ENPLEGUA

Kurrikulum dokumentua honela izendatu:

IzenAbizenak.CV_ENPLEGUA.pdf/doc.

Motibazio gutuna honela izendatu:

IzenAbizenak.KARTA_ENPLEGUA.pdf/doc.

Gutunean hurrengo galderari erantzun: zer ekimen egingo zenituzke gazteen bizi baldintzak hobetzeko?

- **Hauek izango dira prozesuan kontuan hartu izateko hainbat data:**
Kurrikulumen bidalketa, azaroaren 16ra arte (eguerdiko 12.00ak arte).
Idatzizko proba nork egin behar duenaren jakinarazpena, azaroaren 20an.
Idatzizko proba Gasteizen, azaroaren 23an.
Elkarrizketa nork egin behar duenaren jakinarazpena, azaroaren 27an.
Elkarrizketa Gasteizen, abenduaren 1ean.
Lanean aritzeko hautatuaren jakinarazpena, abenduko 1. hamabostaldian.

Lanean hasteko data, 2016ko urtarrila.



HAUTAKETA PROZESUAN PARTE HARTUKO DUTENEK KONTUAN HARTZEKO: **Azken urteetan arlo honetan egindako proiektuen ondorioak:**

ETXEBIZITZA:

- **Etxebizitza Dekalogo:** www.egk.org/publicaciones/publicacion_eus_80.pdf
- **Etxebizitza politika publikoen proposamena:**
www.egk.org/publicaciones/publicacion_eus_90.pdf
- **Etxebizitza Lege proiektuari ekarpenak.**

ENPLEGUA:

- **SOSgazteak, gazteria eta lan emigrazioa:**
www.egk.org/publicaciones/publicacion_eus_101.pdf
- **Ekin ala Plof, gazteak eta ekintzailletza:**
www.egk.org/publicaciones/publicacion_eus_113.pdf
- **Prekarioka, gazteria eta prekarietatea:** www.prekarioka.org
- **Gazteon errezetak Gazteen Enplegu Planak sukaldatzeko:**
www.egk.org/publicaciones/publicacion_eus_124.pdf
- **Enplegu planen hausnarketa eta hauei ekarpenak.**

OROKORREAN:

- **Enplegu eta etxebizitza eztabaidak:**
www.egk.org/publicaciones/publicacion_eus_112.pdf
- **Gazte Planei ekarpenak.**
- **GazteLabel (argitaratu gabe).**